


BURUKETAK

1) Lorea, Josu eta Xuban altxorren bila jolasa prestatzen ari dira. Mapa bat pistekin egin nahi dute altxorra ezkutatzeko. Ibilbidea pentsatu ondoren, neurtu dute distantzia eta 315 metroko luzera du guztira. Bideak hiru tramo ditu eta triangelu aldeak baten forma du. Altxorra aurkitu nahi duenak zenbat metro egingo du tramo bakoitzean?



ERANTZUNA: _____ metro egingo ditu tramo bakoitzean.

2) Etxauriko jaietan herri bazkari bat ospatzen dute urtero. Herriko plazan normalean sei pertsonentzako mahaia eta aulki indibidualak jartzen dituzte. Aurten 168 pertsonak izena eman dute bazkarian egoteko. Antolatzaileek begiratu dute materiala eta honako datuak apuntatu dituzte:

Mahaia 25 (seikoak)

Aulkiak 156 (indibidualak)

Aulki luzeak 3 (seikoak)

Zenbat mahai gehiago lortu behar dute?

Zenbat aulki luzeak erabiliko dituzte denak eserita egoteko?

Erantzun: _____ mahai gehiago lortu behar dituzte.

Erantzun: _____ aulki luze erabiliko dituzte.

3) Mikelek, Naxarik eta Enekok soka pusketa bat aurkitu dute. Sokarekin bakoitzaren altuera neurtzen saiatu dira. Naxariren kasuan, sokaren luzera bere altuera zehatza da. Enekok gogoratu du Naxarik baino 3 cm gehiago neurtzen duela. Mikelek, berriz, Naxarik baino 2 cm gutxiago neurtzen du eta konprobatu du sokaren luzerak bere bi besoen luzera neurtzen duela. Kontuan harturik Mikelen beso bakoitzak 67, 8 cm inguru neurtzen duela, bete ezazu taula hau:



Noren/Zeinen	Neurria (cm)
Naxariren altuera	
Enekoren altuera	
Mikelen altuera	
Sokaren luzera	